

HIRUTIK BATEK DU TXAKURRA ²⁻³

**Laguntza jaso
ondoren, Bakaikuko
udalak eskolen
eraikina
zaharberrituko du / 5**

**Ekaiko kontzejuak
basoko itxiturak
berritzeko lanen
erdiak egin
ditu dagoeneko / 7**

**Sakana Eskualde
Aktiboa Zerbitzuak
4 kalistenia tailer
saio antolatu ditu
abuzturako / 10**

**Sakanako NKJ-en
Triatloia jokatu da
bihar, larunbata,
10:00etan, Urdiaingo
igerilekuetan / 11**

Informazioa, txakurra hartzerakoan beharrezkoa

Txakurren nazioarteko eguna izan zen asteazkenean. Animalia horiekin lan egiten duten hiru adituk azpimarratu dute oso garrantzitsua dela informatua egotea txakurra eskuratzeko momentuan. Foru gobernuaren datuen arabera, hiru sakandarretatik batek du txakurra

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Nafarroako Gobernuak emandako datuen arabera, Sakanan 196 arrazatako 5.893 txakur daude. Ibarrean ugarien diren txakurak dira: mestizoa (%21,01), Ingalaterrako setterra (%12,07), border collieak (%6,82), untxariak (%5,92) eta euskal artzain txakurak (%4,43). Foru administrazioak berak gaztiguatu duenez, 2001etik aurrera jaiotako txakurren datuak dira, eta litekeena da hil eta bajaran eman gabeko animalia asko oraindik erregistroan egotea. Pandemia etorri eta etxeratze agindua ezarri zenean, txakur jabeek inbidiaz begiratzen zieten askok; animaliak paseatzeko aitzakiarekin, haiek baitziren kalera atera zitezkeen bakarrik.

Jakin nahi izan dugu pandemiak txakurak eskuratzeko eraginik izan duen eta, horretarako, egunerokoan animaliekin lan egiten duten hiru emakumezkoengana jo dugu: Maria Goikoetxea Otxoa de Erize albaitaria, Etxarri Aranatzeko Urgain albaitaritzaren zentroa du; Monica Matias Barrenak Scooby txakur ile apaindegia du Altsasan eta Maite Poveda Larrazak Altsasan Zelai albaitaritzaren klinika du.

Lehenik eta behin, galdetu diegu haien lokaletatik zein txakur mota den gehien pasatzen dena. Goikoetxeak, mestizoa eta border collieak aipatu ditu. Povedarenean ere hala da. Kopuruei erreparatuta, zera ar-

gitu du etxarriarrak: "zerrendan gehien dauden artean setterra eta untxariak egotea normala da. Ehiztari bakar batek bost animalia izan ditzake. Gutxi batzuen artean animalia asko dituzte". Matiasenetik gehien pasatzen diren txakur arrazak maltar bitxioia eta yorkshire dira. Mestizoa eta puntualki ehiztariaren batek eramaten duen setterra bat ere izaten du.

Goikoetxeak beste ohar bat egin du: "euskal artzain txakur gero eta gutxiago ikusten ditut". Povedak gaineratu duenez, "lehen, mestizoez batera, ohikoenak ziren; orain oso gutxi daude. Izututa nago. Edo astinaldi handi bat ematen zaio edo desagertu egiten da".

Azkenaldia

Pandemia garaian jendeak txakur gehiago eskuratu ote dituen galdetuta, Goikoetxeak esan du ez duela aldaketa handirik sumatu: "fitxa berriak egin ditut, baina ez gehieg. Ez da atentzioa eman didan hazkunderik izan". Hori bai, "pandemia garaian, dena itxita zegoenean, kalera ateratzeko eta albaitariarengana joateko aitzakia bihurtu ziren txakurak". Matiasenek ere

"BATZUK AURRETIK ASKO INFORMATZEN DIRA, ETA ZERBAIT ZEHATZA NAHI IZATEN DUTE"

ez du igoera handirik ikusi: "kumeak ikusi ditut, baina ohiko kopuruak izan dira". Gaineratu duenez, "jendeak kanixek nahi zituen, baina ezinezkoa zen lortzea". Kontrako impresioa du Povedak, "gorakada bat izan da. Eta katu gehiago hartzen dira. Katu txikiak txertatzera ekartzen dituzte, lehen ez zegoen horren ohiturarik". Goikoetxeak gaztiguatu duenez, "pandemiarekin jendea konturatu da txakurak edota katuak dituela".

Animaliak eskuratzeko hiru bide daude: animaliak babes-teko elkartetatik hartzea, erostea edo kumaldikoa opari hartzea. Matiasenek azaldu duenez, "babes elkartetik bakarren batek erreskatatu badu ere, gehienek txakurak erosi egin dituzte". Etxarriarrak esan duenez, kumaldikoa dira beretik pasa diren txakur gazte gehienak. Povedak, berriz, esan du jende gehienak erosi egiten dituela txakurak. "Eta askok babes elkartetik ateratzen dituzte. Kumaldietako txakurak hartzea zen ohikoena lehen, halako gero eta gutxiago daude: propio egindako kumaldiak izaten dira, abortuak, hustutako txakurak... Jendea erostera pasa da".

Informazioaz

Txakur bat izateko arrazoi ugari zerrendatu ditu Povedak: "ehiztaria delako, animaliarekin ibiltzeko bakarrik bizi direlako, mendian harekin ibiltzeko, arazoak dituzten umeen lagun-

tzaile izateko, 'umeek eskatzen dutelako'... Familietan, gero eta gehiago, gurasoen erabakiz hartzen da txakurra". Goikoetxeak garbi du jendeak txakurra hartzean ez diola arrazari erreparatzen, "eta gero sorpresak dituzte: handitu egin dela, txikia dela, ile asko duela..."

Matiasenek azaldu duenez, berean jendeak tamaina txikiko arrazetara jo du: "uste dute errazago heziko dituztela, edozein tokitara errazago eramanez dituztela eta gastu txikiagoa dutela. Baina, askotan, txakur handi batek izaera hobea du, eta gutxiago mugitzen da. Jendea ez da ongi informatzen zer erosten duen". Horri lotuta, Povedak azken aldiko joera baten berri eman du: "txakurkumea hartu eta harekin hezitzailearengana joatea, txikitatik ongi hezteko. Han doaz astebururo. Lehen hezitzailearengana arazoak zituzten txakurrekin joaten zen jendea".

Urgain albaitari zentroan denetarik ikusi du, "ongi pentsatuta txakurra eskuratu duen jendea dago; animaliak zein gastu, zein ardura eskatzen dituen ederki dakiena. Beste batzuk pentsatu gabe jabetzen dira animaliaz, inpulsoagatik". Pandemian joera hori ez dela aldatu esan du Goikoetxeak, "beti izan da horrela". Albaitari altsasuarrak etxarriarren esanak berretsi ditu: "batzuk aurretik asko informatzen dira, eta zerbaitez zehatza nahi izaten dute. Jendeak asko daki

Altsasu

Txakurak: 1.645
Txakurak ehunekotan: %27,9
Arraza ohikoenak: mestizoa, Ingalaterrako setterra eta Border Colliea
Txakurak herrian: %22,04

Olatzagutia

Txakurak: 479
Txakurak ehunekotan: %8,13
Arraza ohikoenak: mestizoa, Ingalaterrako setterra eta untxaria
Txakurak herrian: %32,15

Ziordia

Txakurak: %142
Txakurak ehunekotan: %2,41
Arraza ohikoenak: mestizoa, Ingalaterrako setterra eta untxaria
Txakurak herrian: %40,57

txakurrez. Baina besterik gabe hartzen dutenak ere badaude, bai".

Scooby txakur ile apaindegikoak albaitariaren antzeko iritzia du: "oso jende gutxi informatzen da txakurra eskuratu aurretik. Kume bat ikusi, gustatu, eta etxera. Eta ez daki ez zein ile duen, ez zein hazkunde izanen duen. Gutxi batzuk dira animalia eskuratu aurretik haren izaeraz eta mantentzeaz informatzen direnak". Horregatik, jendeak animalia bat eskuratu aurretik "ongi pentsatzea" eskatu du Goikoetxeak; "nik jendeari esan izan diot ez hartzeko. Zertarako hartuko du animalia ezin badio ongi kasu egin, ez badu harendako denborarik eta ez badu kontuan izan animalia bat izateko dirua ere behar dela".



EGOKI
Ventanas PVC Leihok

www.ventanasegoki.com


948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

EROSOTASUNERAKO PENTSATUAK


Diseinu soileko lehio berriak

Erakusketa: Olite kalea 16 · Iruñea





Sakanan ohikoen diren txakur arrazak





ASTEKOA

YOLANDA OLASAGARRE

Eloa egitera joan, eta etro janda despeditu

Aurreko egunean, lagun artean geundela, "elo" eta "etro" hitzak aipatu genituen. Guretako batzuek ezagutzen genituen, beste batzuek, ez. Hor ibili ginen, momentuan bertan, Orotariko Euskal Hiztegia bilatzen (gaur egun sakelako telefonoekin egin daitekeena). Bertan "etro" hitza opatu genuen, guk ematen diogun esanahi berarekin: asko, izugarri adierazteko, "etro ari du" euria barra-barra ari du esateko. Halere, gure eztabaidan gehienok, aldaerak aldaera, asko jan dugula esateko erabiltzen dugula aipatu genuen: "etro jan genuen".

"Elo" hitza, ordea, ez genuen bertan opatu; halere, lagun batek ez zuen etsi aurkitu artio eta Erdoziaren hiztegia opatu zuen (digitalizatua dago Euskaltzaindiaren webgunean, gainera). "Elo" hitza kapritxua egiteko edo probatzeko adina adierazteko esanahia dauka, esaterako, probatzeko adina onddo jan ditugu, baina gure artean oporren eloa egin dugu edo antzekoak esateko ere erabiltzen dugula baieztatu genuen.

GURE AURREKOEK GURI ETA GUK GURE ONDORENGOEI ETA GAZTEEI TRANSMITITZEKO ZAILTASUNAK NOLA GAINDITU DA GURE HIZKUNTZAREN AJEETAKO BAT

Elkarrizketa mota horiek adin guztietan sortzen badira ere, gure adinkideen artean maizago sortzen dira, iragan zati handi samarra bizi izan dugulako eta atzera begira jartzen garelako. Horraino ongi, baina iragan horren zati interesgarri eta erabilgarriak, gure aurrekoek guri eta guk gure ondorengoei eta gazteei transmititzeko zailtasunak nola gainditu da gure hizkuntzaren ajeetako

bat, baita inguru euskaldunetan ere. Sarritan hiztunon adierazkortasuna indartu, aberastu eta ñabartzeko hizkuntza baliabideak izan baditugu, baina horiek erabiltzeko zerbaiten faltan gaude. Apika, gertuko edo inguruko norbaitengatik entzutea falta zaigu, eta horretarako belarria jartzea besterik ez dugu behar.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). **GUAIXEK** eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus



BAZTERRETIK

JUANKAR LOPEZ-MUGARTZA

Arruazutik dator notizia

Uda albiste kezkarriez beterik iritsi zaigu. Balear Uharteetan protesta ugari egon dira buruarineko gazte andana bat bost izarretako hotel batean "bahitu" dutelako birusa zabal ez zezaten. Madrilan, berriz, erizain bati lehertu diote begia, pandillero bati metroan musukoa eraman zezan eskatzeagatik. Alemanian aldaketa klimatikoak uholdeak eragin ditu pandemiaren kalteak areagotuz. Kuban bosgarren olatuak eta blokeoak miseria eta gosea ekarri dituzte. Espainian gizon batek emakumea erail du...

Zerrenda luza nezake oraindik ere, baina soilik bat gehiago gaineratuko dut, hau ere makurra... txakur amorratuen modura, giza talde batek Samuel gazteari egin dion eraso homofoboarena.

Altsasuko gertaerekin konparatzen badugu, oso trataera ezberdina izan du berriak. Batean, argazkiak, izenak eta guzti hasiera-hasieratik argitara eman ziren, eta alde zaureratik epaiketa publikoa egin zitzaiezen erruduntzat joaz, defentsarako aukerarik eman gabe. Oraingo kasu honetan, berriz, bestela jokatu dute. Ez dago gaizki...

Horregatik, hainbeste berri txarren artean, Arruazuko herriak Tomas Ganboa Argiñeneko ezkiila jotzaileari egin dion omenaldiak argi propioarekin distiratzten du.

Berri guztiz ona da, ez soilik bere bizitza osoko lanagatik omendu zaiolako, baizik eta eguneroko bizitzarako emaniko irakaspeneak ere eskertu zaizkiolako. Honela, ezkiila jotzean bezala, gizarte on bat

eraikitzean gure harremanen sokak ongi jartzen ikasi behar dugu, sokak beren neurrian tenkatzen jakinik, ez gehiago ez gutxiago, indarrik egin gabe. Bizitzan lana ongi egitea kosta egiten dela dio, denbora eta dedikazio gehiago eskatzen du, baina horrela bakarrik lortzen da ezkiilari bere soinurik ederrenak ateratzea, eta jakin behar dugu gure bizitzan soinu propioak sortzen, inoren soinuak ixilarazi gabe.

Tomas Ganboak bere kanpaien danbatekoekin espazioa bete du urteetan eta, honela, gaiztaginak eta elkartasun hitzaren esanahia ulertzen ez dutenak uxatu ditu, mundu hobeago baten loreak, bere etxeko balkoian bezala, gure bihotzetan ereiten.



guaixe
SAKANAKO ATEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Idoia Artieda Larraza

Lege gordailua: NA-633/1995

Tirada: 3.200

Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa

guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Lune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Eskolak eta denda udal inbertsioen zerrendan

Duela bost urte eskatutako dirulaguntza jaso ondoren, eskolen eraikina zeneko teilatua konponduko du udalak. Bestetik, herriko denda ixten denerako ordezkoa izateko pausoak ematen hasi da udala eta lokala erosi du

BAKAIKU

Bakaikuko Udalaren aurtengo aurrekontuak sarreretan eta irteeretan gora egin du. 454.419,47 euroko diru sarrerak aurreikusi ditu udalak, aurreko urtean baino 171.655 euro. Egoitz Urritza Lazkozek azaldu duenez, epaitzairen salmentak eta dirulaguntzek ekarri dute handitzea. Bestetik, 356.494,65 eurokoak dira diru irteerak, 2020an baino 74.188,96 euro gehiago. Atal horretan Bakaikuko Udalak inbertsioetarako 81.000 euro aurreikusiak ditu.

Bakaikuko Estrategia Planari jarraipena egiteko bilera egin zen larunbatean. Udalak jakinarazi zuenez, eskolak zaharbertzearen alde egin du. Urritzak azaldu duenez, "duela 5 urte Nafarroako Gobernuari frontoian hobekuntzak egin eta eskoletako teilatua konpontzeko laguntzak eskatu genizkion. Eskoletakoa itxaron zerrendan utzi zuten, baina beste udal batzuek dirulaguntzei uko egin dietenez, api-



Bakaikuko Udalak denda jartzeko ezkerreko bajera erosi du.

rilean jakinarazi ziguten teilatua konpontzeko dirua eman zigutela. Aukera ezin da galdu".

Eskolen eraikineko teilatua berritzeko 50.000 euro inguru jasoko du udalak. Alkateak azaldu duenez, teilatuaz aparte, erai-

kin guztia berrituko dute. Beheko solairuan haur txokoa eta erabilera anitzeko gela egingen dituzte. Goiko solairuan, berriz, etxebizitza pare bat egiteko aukera mahai gainean dute. Udal arkitektoak udazkenerako proiektu-

tua egingen duela aurreikusi dute. "Hura eskuetan, dirulaguntza gehiago eskatuko ditugu", gaineratu du Urritzak, besteak beste, Nafarroako eta Europako atek jartzeko aukera dagoela argituz.

Etxebizitza

Bakaikuko Estrategia Planeko lehentasunen artean zeuden eskolen eraikina eta auzolanak. Horien ordenantza onartua eta indarrean dago. Udazkenean hastea aurreikusten dute. Bitartean, udala auzolanak egiteko ekarpenak jasotzeko prest dago. Hirugarren lehentasunari heldu diote bakaikuarrek, etxebizitza. Urritzak azaldu duenez, "lantalde bat sortu da, eta hainbat pertsonak herrian etxebizitza lortzeko gogoia dute. Herrian dauden aukerak aztertzen ari dira", dela alokairua, zaharbertitzea, eraikin berriak jasotzea...

Etxebizitzari buruzko galdeketa zabaldu zuten bakaikuarren artean, premia zein den jakiteko. Alkateak azaldu duenez, Nasuinsa enpresa publikoarekin harremanetan daude. "Guk informazioa bidali genien. Eta haien teknikari bat herrira etorriko da, egoera bertatik bertara aztertzeraz. Baina oraindik 'berde' dago dena", azaldu du alkateak.

Denda

Bakaikuarren artean alarmak piztu ziren jakin zutenean herriko denda bakarrak urte akaberan atek itxiko dituela. Herriak

halako zerbitzua galtzea galera handia litzatekeela iritzita, zerbait egin beharra zegoela uste zuten askok. Udala ere iritzi berekoa izanik, hainbat lokal ikusi ondoren, denda jartzeko bajera bat erosi du Maldaiko larrainan, Malda kaleko 3. zenbakian. Irisgarritasuna, espazioa, lege eskakizunak eta beste betetzen ditu lokalak. Horretarako, 50.000 euro bideratuko ditu udalak. Hura egokitu eta denda bihurtzeko lanak ere inbertsioa eskatuko diote udalari. Horregatik, Nafarroako Gobernuari dirulaguntza eskatzea aztertzen ari dira udalean. Langintza horretan Cederna-Garalurreko Susana Mendinuetauren laguntza eta Sakanako Garapen Agentziaren aholkularitza izan du udalak. Dendaren nondik norakoak zehazteko bilduko dira bakaikuarrek irailean. Haien asmoa da egungo denda ixten denean, beste denda bat zabaltzea.

Bestetik, udalak ibai gaineko zubi berriaren ondoan ibilgailuen abiadura moteltzeko obrako oztopo goratua egingen du eta gomazko lau jarriko ditu Santioalde eta elizpe kalean, "Jendea abiadura handian ibiltzen da".

DAGOEN DENDAK IXTEN DUENERAKO ORDEZKOA PREST IZAN NAHI LUKETE BAKAIKUARREK

Gero eta gazteagoak txertatzen ari dira COVID-19aren kontra

Herenegun 18 eta 29 urte arteko gazte batzuek jaso zuten txertoaren lehen dosia

SAKANA

COVID-19 gaitzari aurre egiteko txertaketa kanpainarekin segitzen du Osasunbideak. Asteazkenean, Irurtzunen 30 eta 39 urte artekoen txanda izan zen. Eta haiekin batera 18 eta 29 urte arteko batzuek ere jaso zuten txertoaren lehen dosia. Guztira 1.161 txerto jarri ziren herenegun. Azken horiek agorriaren 3an jasoko dute Pfizerren bigarren dosia.

Bestalde, Sakanan 88 COVID-19 kasu positibo zenbatu ditu Osasunbideak garila hasieratik he-

renegunera arte. Koronabirusak gaixotu dituen sakandarren kasuen erdiak (44) garileko lehen 14 egunetan izan ziren eta beste kasuen erdia zazpi egunetan zenbatu ditu, hilaren 15etik herenegunera arte. Beraz, ibarreko datuek Nafarroan izandako kasuen gorakadarekin bat egiten dute. Azken positibo horiek herriz herri horrela banatu dira: Altsasu 17, Irurtzun 12, Ziordia 4, Uhartea Arakil 3, Egiarreta eta Lakuntza bina eta Etxarren, Sastrusti, Arbizu eta Etxarri Arantzen bana.

Aralar Mendik jakinarazi du Artzain Eguna izanen dela

COVID-19ak eragindako osasun larrialdi egoerak okerrera egiten ez badu behintzat, aurten Artzain Eguna izanen da. Aralar Mendi elkarteak pandemia egoerari moldatuta bi ekitaldiko egitaraua prestatu dute agorriaren 29rako. Batetik, Nafarroako ardi latxen esne gordinarekin egindako gazten lehiaketa. Hori, 10:30etik 14:30era, Larrabieta frontoian izanen da. Epaileez aparte gazta salmenta postuak egonen dira frontoian. Edukiera muga izanen da eta elkartekideen sarrera irteerak kontrolatuko dituzte. Bestetik, Nafarroako artzain txakurren 53. lehiaketa jokatu da, 17:00etan. Geinberan 800 ikuslerendako tokia egonen da.

Egun on Sakana

Goizero 10:00 | Errepikapena 14:00



107.3 FM
beleixe

"Biokultura ondarea berreskuratu eta zabaldu"

GARBIÑE OLAZAR BAZTERRIKA ARAKILGO SOZIOKULTURA DINAMIZATZAILEA
Igandean, 18:30ean, Itxasperi ermitan 'Arakilgo bertako barietateen gida. Nekazaritza bioaniztasunari lotutako ezagutza tradizionalen bilketa bat' aurkeztuko da

Eneida Carreño Mundiñano ARAKIL
Desagertzeko arriskuan dauden nekazaritza barietateen berri jaso dute, zabaltzeko. Arakildar askorendako ezezagunak dira, "batez ere gazte eta adin ertainekoendako". Gida argitaratuz, balio handiko natura eta kultura ondarea ezagutarazi nahi izan dutela gaztigatu du Garbiñe Olazar Bazterrikak, Arakilgo Udaleko soziokultura dinamizatzaileak.

Nola iritsi zarete argitalpen honen edukiak biltzera? Nork landu du argitalpena?

Hainbat motatako 72 elkarrizketa egin zaizkie Arakilgo 53 pertsonari. Ezinbesteko informazioa klabeak bilatu dira: gehienetan adineko pertsonak, inguruko biztanleak, nekazaritza jakinduria dutenak eta bertako barietate batzuk ezagutu edo gorde izan dituztenak. Informazio gehiena eman digutenak 75-80 urtetik gorako pertsonak izan dira. Elkarrizketatuek emandako datuekin eta landa lanarekin, barietate bakoitzari buruzko informazioa osatu da.

Argitalpen honen oinarrian hiru erakunde aipatzea ezinbestekoa da: batetik, Arakilgo Udala, proiektua finantzaketaz gain, edizioan ere parte hartu duena. Bestetik, Sakanako Garapen Agentzia, laguntzaile moduan, eta, azkenik, Arrea agroekologika, egile lanetan.

Zer biltzen da? Nolako antolaketa du gida horrek? Aurkeztu atalak ideia bat egin dezagun.

Igandean aurkeztuko den gida *Bertako haziak-semillas de biodiversidad* proiektuaren landa lanaren zati bat da. Tokiko nekazaritza barietateak, hau da, fruta arbolak eta barazkiak bilatu, aurkitu eta horien erabileraren inguruko nekazaritza ezagutzak bildu nahi izan dira. Helburu nagusia barietate horiek aurkitu eta berreskuratzea da, gure elikadurarako, gastrono-



Garbiñe Olazar Bazterrika. UTZITAKOA

"GURE ELIKADURA, GASTRONOMIA, KULTURA, INGURUNE ETA GARAPENERAKO BALIO HANDIA DUTE"

miarako, kulturarako, ingurunerako edota landa garapenerako duten balio handia dela eta. Zazpi motatako 70 barietate baino gehiago aurkitu dira ikerketan, eta barietate bakoitzaren ezaugarriak sailkatzeko fitxa txikiak sortu dituzte bakoitzaren izena, herria, deskribapena, kontsumitzeko garaia, erabilerak, bertakoek emandako balorazioa, jatorria eta kasuren batean berriz sartzeko aukera ezaugarri eta interes kulturala dela eta. Fitxa horietan, ikerketa prozesuan ateratako argazkiak ere atxiki dira.

Igandetik aurrera egonen da eskuragarri informazio guztia, baina bakarren bat aipatzearen: udareak, aranondoak, sagarrondoak, pikuondoak, gaztainondoak, hurrak, intxaurreondoak, mahatsondoak, mizpirak, poma, babarrunak...

Nork hartu du parte lan honetan?

Parte hartzaile nagusiak elkarriketatutako pertsonak izan dira, guztira 53. Euren ekarpenak ezinbestekoak izan dira landa lana egiteko, eta azpimarragarria da horietako gehienak adinekoak izan direla. Nekazaritzaren inguruko informazio iturri handia izateaz aparte, ezagutza tradizionalaren zein memoria historikoaren euskarri dira, eta haien bitartez lortu dugu barietateen inguruko informazioa berreskuratzea.

Entitatearen baten laguntzarik izan duzue?

Gida hau *Bertako barietateak-Semillas de diversidad* proiektuaren barruan dago. Honetan, bertako barietateak berreskuratzeke hainbat ekintza egiten ari dira, horietako batzuk hainbat erakunderekin koordinatuz, esaterako: Nafarroako Unibertsitate Publikoko Frutagintza eta Mahastizaintza Aurreratutako Departamentua, Nafarroako Mahastizaintza eta Ardogintza Estazioa (Evena), Baliabide Fitogenetikoen Zentroa (Inia) edo Barazkien Germoplasmako Bankua (Cita Aragoi).

Nola antolatu duzue aurkezpena?

Proiektuan parte hartu duten nekazari zein baratzezainei gonbita egin zaie igandean Itsasperi bertaratzeko. Oihana Olaberria Jakak (Arakilgo Udaletik), Nerea Viana Zugadik (Sakanako Garapen Agentziatik) eta Ester Montero Gonzalezek (Arreatik) lortutako emaitzen aurkezpen txikia egingen dute, gida honetan biltzen diren barietateak aztertuz. Ondotik, hizketaldi txiki bat egonen da bertako nekazariekin, hainbat balorazio eta iritzi bilduz eta gaiaren inguruko debate txikiak sortuz.

Aurkezpenari bukaera xamurra emateko eta parte hartzaileen inplikazioaren garrantzia azpimarratzeko, hainbat jateko egonen dira egunari itxiera biribila emanaz.

Zergatik da garrantzitsua hau argitalpen batean biltzea?

Nekazaritza biodibertsitatearen galerak, nekazaritza, elikadura, ekosistema, lurra eta gizakia berarendako suposatzen duen mehatxu izugarriaren aurrean, gure hazitxoak jarri nahi izan dugu, bertako biokultura ondarea berreskuratu eta zabaltzeko konpromisoa hartuz. Gure nahia, jasotako ezagutzaren bitartez, beste nekazaritza eredu bati bide egitea da. Lurra eta gizakia bera, erdigunean jarriko dituen eta errespetua ardatz izan den nekazaritza eredu bati, alegia. Joan den mendeko hirurogeiko hamarkadatik aurrera tokiko barietateak erabiltzeari utzi zitzaion, eta dibertsifikazioan oinarritutako nekazaritza ereduak galdu zen. Abandonu horren emaitza, hain zuzen ere, barietate askoren tokiko izenak, ezaugarriak edota erabilerak memoria kolektibotik ezabatzea izan da. Hala ere, zorionez, oraindik bizi dira ingurunea modu tradizionalan kudeatzen jarraitu duten eta nekazaritza kultura gorde duten adineko pertsona batzuk.

Aurkeztu eta gero, zer zabalpen izango du?

Aurkezpena egiten den egunean bertan eskuragarri egongo da gida. Arakilgo etxe guztietan banatuko da ale bana. Horretaz aparte, sare sozialen bitartez egonen da zabalpena, interesa duen orok ikerketa irakurri ahal izateko. Material guztia nahierara erreproduzitu eta erabil daiteke, helburu ez-komertzialerako bada eta iturria aipatzen bada.



Dantzariak Itxasperin. ARTXIBOA

Aurten ere ez da Arakilgo Egunk ospatuko

Pandemiaren eraginez, bertan behera uztea erabaki du Arakilgo Udalak

ARAKIL

Jende pilaketak saihestu, eta koronabirusaren hedapena mugatzeko eta osasun publikoko arduradunek COVID-19 gaitza ez zabaltzeko hartutako neurriekin bat eginez, Arakilgo Udalak bertan behera utzi du ibarreko egunaren ospakizuna. Pandemiak arakildarren urteroko topaketa eguna eragozten duen bigarren urtea da. Igandean Arakilgo Egunaren 17. edizioa zen ospatzekoa.

Hala ere, udalak iganderako egitarau sinbolikoa antolatu du. Goizean txistulariek herriak beraien doinuekin alaituko dituzte. COVID-19 gaitza ez zabaltzeko ezinen da haiekin kalejiran ibili herrietan barna. Horren ordez, txistu doinuekin gozatu nahi duenak etxe paretik entzun beharko ditu txistulariak.

Horrekin batera, 90 urte baino gehiago dituzten 19 arakildarren etxeetara joanen dira Arakilgo Udaleko kideak. "Ibarrari emandakoa eskertu eta pandemia garaian hain gaizki pasa duten arakildarrei eskerrak eman nahi dizkiegu", azaldu du Oihana Olaberria Jakak. Azkenik, urtero moduan, joan den urtean jaiotako ume arakildarrei ongi etorria emanen die Arakilgo Udalak, ibarreko festetako ttattarra eta beste oparitzu.

Basoko itxituren bigarren fasea egina

Itxiturak lau fasetan berritu nahi ditu kontzejuak. Orain arte fase bakoitza egin ahal izateko 20.000 euroko inbertsioa egin du. Bestetik, dagoeneko telefonoko linea lurrazpitik sartuta dute herrian

EKAI

Ekaiko Kontzejuak 24.467 euroko aurrekontua du aurten eta diru kopuru horretatik zatirik handiena inbertsioetara bideratu du, 20.000 euro inguru hain zuen ere. Patxi Uharte Garro kontzejuko presidentea azaldu duenez, "basoko itxiturak berritzeko lanen bigarren faseko lanak ostiralean despeditu zituzten. Herriarekin muga egiten duen baso zatian berritu dugu itxitura". Abeltzaintza azpiegituretarako Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza izan dute lanak egiteko.

Uhartek azaldu duenez, "argiteria publikoko sarea eta argindar sare nagusia lurperatu ondoren, Telefonicarekin harremanetan geunden, haien sarea lurpera zezaten. Ez zuten erantzuten, Nafarroako Gobernuak emandako erabilera askeko 20.000 euroak basoko itxitura berritzeko erabili genituen". 2019koa da itxituraren lehen fase hori, basoaren eta soroen eta herriaren arteko zatian jarri zuten orduan.

Basoko itxiturak berritzeko beste bi fase aurreikusten dituzte kontzejuan. Mendi gainean Ekaik Iltzarbarekin muga egiten duenez, ekaitarrak hango kontzejuarekin harremanetan jarri dira, itxitura berritzeko lanak



Ekaik mendi magalean du basoa.

nola egin zehazteko. Ekaiko basoak Urrietzolarekin ere muga egiten duenez, Uharteren asmoa da hango kontzejuarekin ere harremanetan jartzea. Kontzejuak diru likidezia duenean egingen da hurrengo fasea. Presidenteak azaldu duenez, "lehen denek genuen azienda eta basoan egote zen. Gaur egun bakar batek du. Baina gehiago sartu nahi badugu, itxiturak ongi egon behar dute".

Sareak

Ekain lurpeko hodietatik sartuta zituzten argiteria publikoko

kableak eta argindar orokorreko kablea ere. Falta zen bakarra Telefonica zen. 2020an, inor gazitatu gabe, herrian agertu eta sarea lurperatu zuten. Lanak egin ondoren, enpresako ordezkari batek lurpeko azpiegituren erabileraren zeresia eskatu zuen. "Udalak egindako lana da eta kontzejuak zeresia hari eginga dio. Udal idazkariarekin hitz egin genuen eta uko egin diote". Azkenik, zuntz optikoa herrira iritsiko delako "pozik" daude. "Herri txikia gara, baina handien behar berak ditugu".

Abiadura Handiko Trenaren kontra, bizikleta gainean

Iruñea eta Atxondo lotuko dituen bizikleta martxa Sakanatik pasako da asteazkenean eta ostegunean

SAKANA

Abiadura Handiko Trenaren (AHT) kontrako kanpaldia hartuko du Atxondok (Bizkaia) hilaren 30etik agorrilaren 1era. Nafarroatik hara joateko eta, bide batez, AHT egitasmoa salatzeko, bizikleta martxa antolatu du AHT Gelditu!-k. Hiru etapatan egingen dute Iruñea eta Atxondo arteko ibilbidea: Asteazkenean, Iruñea Etxarri arteko bidea egingen dute. Ostegunean tropela Etxarri Aranaztik abiatu, eta, Burunda zeharkatu ondoren, Etura (Araba) arteko bidea egingen du. Ostiralean Eturatik Atxondoko kanpaldiraino joanen dira.

AHT Gelditu!-ko kideek azaldu dutenez, "AHT dagoeneko erakita dagoen azpiegiturea da eta atzera egiterik ez dagoela inposatzen ari zaigun ideia da. Ez da horrela". AIREF (Erantzukizun Fiskaleko Agintaritzaren Independentea) erakundeak emandako datuak gogorarazi dituzte, "Euskal Autonomia Erkidegoan 15 urteko lanen ondoren, inbertsio osoaren %58 falta da oraindik. Nafarroan 10 urteko lanen ondoren inbertsioaren %96 falta da oraindik".

Bizikleta eta kanpaldia antolatzaileek azaldu dutenez, "AHT Euskal Herriaren etorkizunerako azpiegiturea estrategikoa eta funtsezkoa dela sinetsarazi nahi digute". Lanetara bideratutako "aurrekontu neurrigabeak" salatu dituzte. Baita COVID-19aren ondoren berreskurapenerako Europako funtsen zati handi bat

azpiegiturea hori finantzatzeko erabili nahi izana ere. "Funts publiko horiek, beste behin ere, enpresa pribatuek finantzatzeko dituzte kapitalismo berdea sendotzeko aurrekaririk ez duen operazio batean, eta, aldi berean, gizarte gaietan egindako murrizketak eta biztanleriaren sektore handien pobretzea gero eta ja-sangaitzagoak izango dira". Exijitu dute "inbertsio publiko gehiago ez xahutzea hondorik gabeko putzuan, iristen ari den kolapsoa are gehiago bizkortuko baitu".

Egitaraua

Garilak 28, asteazkena

- **09:30** Nafarroako Gobernuaren egoitzaren parean.
- **14:00** Iruztunen bazkaria.
- **17:00** Iruztundik abiatu.
- **18:00** Uharte Arakil.
- **19:00** Etxarrira iritsi. Afaldu ondoren, sorpresa.

Garilak 29, osteguna

- **09:30** Etxarri Aranaztik abiatu.
- **10:30** Altsasu.
- **11:30** Ziordia.
- **20:00** Etura.

Garilak 30, ostirala

- **09:30** Eturatik abiatu.
- **18:30** Atxondora iritsi.

Altsasuko Auzia, Europako auzitegian onartua

Auzipetuek bidezko epaiketa izan ote zuten aztertuko dute Estrasburgoko epaitegian

ALTSASU

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak aurkezten zaizkion auzi gehienak atzera botatzen ditu. Lehen filtro hori pasatzea zaila da. Baina Altsasuko auziak gainditu du, tramitera onartu ditu

Ainara, Aratz, Iñaki, Jonan, Jokin eta Julenen abokatuek aurkeztutako helegiteak. Litekeena da Adurren eta Oihanen helegiteek bide bera hartzea. Beraz, Europako epaileek auzipetu altsasuarrek bidezko auzibidea

izan duten edo ez aztertuko dute. Abokatuek zigoren kontrako helegiteetan horretaz aparte argudiatu zuten auzibidean hainbat irregulartasun izan zirela. Epaia jakiteko urte bat pasa beharko da. Gurasoek eta auzipetuek "pozez" hartu dute erabakia, eta "itxaropena" baldin badute ere, badakite Estrasburgoko epaitegiak auzia onartzeak ez duela ziurtatzen azken epaia aldekoa izatea. Horregatik, zuhurtziaz begiratuko diote aurrerantzean ere Europako auzitegiari.

Zure edari banatzailea!

Hijos de Goikoetxea

Tel. 948 467 317 - 998 979 279 • Geltoki auzoa 11 • ALTSASU

Trebakuntza teknikoetako ikaslendako laguntza

Ikasketa ofizialak eta arautuak ez diren ikastaro, jardunaldi, biltzar, mintegi edo gisakoetan parte hartu duten herritarrek Sakanako Mankomunitatearen dirulaguntza jasotzeko aukera dute. Beti ere, gaia edozein dela, euskaraz izan badira edo euskararen edota hizkuntza gutxituen normalizazioarekin edo sozio-linguistikarekin zerikusia dutenak. Mank-ek matrikula gastuei aurre egiten lagunduko du bakarrik eta, beraz, deialditik kanpo gelditzen dira egoitza eta kilometraje gastuak.

Laguntza deialdiko poltsak 500 euro ditu. Dena den, Mank-ek ez du 200 euro baino gehiagoko dirulaguntzarik emanen. Eskaerak aurkezteko epea abenduaren 18an despidituko da. Aurkeztu beharreko dokumentazioa honakoa da: eskabide ofiziala beteta, eskatzailearen nortasun agiriaren kopia, erroldatze ziurtagiria, asistentzia ziurtagiria, matrikularen ordainagiria eta aitortpena, arrazoi beragatik administrazio publikoei edo entitate pribatuei eskatutako edo haiek emandako dirulaguntza guztiena. Eskatzaileen bete beharrrak dira: ikastaroaren % 80an parte hartu duela frogatzea, Sakanan erroldatuta egotea eta Mank-ekiko zerga betebeharrak ordainduta izatea.



Enpresa batzordekoak aldarrikatzen.

Sunsundeguin lanuzterik ez egitea erabaki dute

Sunsundeguiko langileek lan osasuna, lan kategoriak, aurrejubilazioak eta berdintasun planak lantzeko batzordeak biltzea eta akordioak ixtea nahi dute. Baina ez dute halakorik lortzen. Horregatik, enpresa batzordearen gehiengo osatzen duten LABek, CCOO eta ELAk deituta langileek goizero kontzentrazioak egiten dituzte lantegian bertan. UGTk ez du mobilizazioekin bat egin. Aldarrikapenari indar gehiago emateko lan uzteak egitea proposatu zuten. Bozkaketa egin zuten langileek eta 106k kontra egin zuten eta 92k alde. Beraz, goizeroko protestekin segituko dute. Irailean, egoera aldatzen ez bada, beste dinamika bati heltzea ez dute baztertzen.

Pandemia, muga itxiera, arropak eta salaketak

Gurelurrek salatu du Arbizuko bi pabilioitan Gipuzkoan gaika jasotako arropa legez kanpo bota dela. Bi sakandarrek alokatutako pabilioiak dira, arropa berrerabili nahi dute, baina pandemiak eragindako muga itxierak kanpora bidaltzea eragotzi die

ARBIZU

Gipuzkoan hondakinen gaikako bilketaren bidez jasotako arropa metak agertu ziren Ziordian 2019ko iraila erdialdean. Ziordiko Udalak salaketa jarri zuen eta gerora, herritar baten gaztigua jaso ondoren, Gurelurrek salaketa publikoa egin zuen. Erakundeak herenegun beste ohar bat zabaldu zuen jakinaraziz, Arbizuko bi pabilioitan Gipuzkoatik ekarritako arropa pilatzen ari zirela.

Arbizuko bi pabilioiak alokatu dituztenak bi sakandar dira. Azaldu dutenez, "Gipuzkoan gaika jasotako arroparekin lehen baheketa bat egiten dute eta ongi dagoena Emausen bidez merkaturatzen da berriro. Gainontzekoa, errefusa gisa, hondakindegira joan litzateke". Argitu dutenez, beraiek azken hori hartzen dute eta "bigarren baheketa egiten dugu. Baliagarria den arropa Senegal edo Camerunera bidaltzen dugu, eta errefusa dena, Herbehereetara. Han errefusa den arropa horretatik trapaak, haria, plastikoa... ateratzen dituzte. Dena bereizten dute. Gainera, isolatzaile gisa erabili daitekeen aztertzen ari dira". Bi sakandarrek esan dutenez, "hondakindegian bukatu behar zuen arropa horren guztia aprobetxatzen da horrela".

Bi pabilioi arropaz beteta zergatik dituzten azaldu nahi izan dute ere. "Beste herri batean pabilioi bat dugu, baina pandemia iritsi zenean, mugak itxi ziren, eta orain arte horrela egon dira. Arropa batera edo bestera ezin bidali ibili gara. Aspaldiko partez, joan den astean bidali genuen lehen edukiontzia". Arbizun alokatutako azken pabiloira azken bi asteetan egunero bina kamioi iritsi dira eta hara kamioia sartzerik ez zuenez, palarekin sartu behar izan dutela ere argitu dute. Antza, kamioien Arbizurako etorria ez da errepika-



Arropa metak Arbizuko pabilioietako batean. GURELUR

BIDALKETAK HASITA, ARBIZURA KAMIOI GEHIAGO EZ DIRELA JOANEN JAKINARAZI DUTE JABEEK

tuko. Eta mugak zabaldu direnez, haiek husten hasiko direla jakinarazi dute.

Gaineratu dutenez, Foruzaingoa, Guardia Civila eta Nafarroako Gobernuak jakinaren gainean daude. "Ez dago inolako lege hausterik", ziurtatu dute. Ziordian botatako arroparekin zerikusirik ez dutela ere argitu dute. Bi sakandarrek azaldu dutenez, "hondakinen kudeatzaile lizentzia eskuratzeko paper baten faltan gaude. Gure asmoa da dena berrerabilitea eta ezer ez botatzea".

Salaketa

Gurelurrek, Natura Ingurunea Babesteko Nafarroako Funtzak, azaldu duenez, Ziordiko kasuan bezala, arropa ekartzen duena Astigarragako Ekotrade enpresa gipuzkoarra da. Zehaztu duenez, Tolosaldean gaika bildutako eta birziklatzeko arropa da oraingoan

ere Arbizun agertu dena. Gurelurrek Guardia Civilaren Natura Babesteko Zerbitzuari, Sepornari, gertakariaren berri eman dio, "legez kanpoko isurketa horiek gelditzeko eta Sakanan isuritako arroparen tonak berehala kentzeko".

Salatzaileen iritziz, "isurketen arduradunek, ingurumen erantzukizunak izateaz aparte, erantzukizun penalak ere izan ditzakete; izan ere, birziklatzeko eta berrerabiltzeko ematen zaizkien arropetatik enpresa horrek legez kanpo egiten duen isurketarekin, beren zerbitzuak kontratatzen dituzten administrazioei iruzur egiten ari ahala zaie". Gurelurreko ordezkariak gaineratu dutenez, "arropa ematen duten herritarrei ere iruzur egiten zaie, gezurra esaten baitiete ematen zaien xedearekin eta erabilerarekin. Ingurumen eta gizarte helburuetarako arropa emateko lana hartzen duten pertsonen sentsibilitatea zapaltzen ari dira".

Gurelurrek, bestetik, gogoratu du Ziordian arropa duela urte eta erdi erretiratu gabe dagoela eta Ekotrade enpresaren "erabateko inpunitatea" salatu du.

DUELA 25 URTE...



Bakaikuarrak Nafarroako Aurora jaialdian

Azagrak hartu zuen III. Nafarroako Aurora jaialdia eta Bakaikutik 28 abeslari joan ziren. Gitarra, akordeoi eta bandurria doinuen laguntza izan zuten. Azagrako Udalak emandako gosariaren ondoren, bakaikuarrak hiruzpalau kaletan aritu ziren kantari. Honako kantak abestu zituzten: *Jaiak jaiaren*, *Ezkildorren* (Bakaikuko jatorrizko abestia), *Don Gil de Alcala*, *A tus puertas pastora divina* eta *Ave Maria*. Mezaren ondoren herri bazkaria izan zen parte hartzaile guztiendako.



Hegoaldean Dermau eta Lezalde; autobioiko tunelen eskuinean Beikolar.

Dermau eta Lezaldeko hirigintza sektoreak arautuko dituzte

Udalak horretarako lantaldea osatuko du. Bestetik, Beikolarreko Plan Berezia onartu du udalak

ALTSASU

Urteko kontuen txostenean ezarritakoa betetzeko, Altsasuko Udalak azken bilkuran erabaki zuen Dermau eta Lezalde hirigintza sektoreak erregularizatzea. Hala eskatu zuen kontu hartzaileak txosten bidez. Hori dela eta, Altsasuko Udalak aho batez erabaki zuen eginkizun horretarako lantalde bat sortzea. Haren kide izanen dira Hirigintza eta Ogasun Batzordeetako kideak eta udal teknikariak. Helburua da, 2022ko lehen sei hilabetearen akabera baino lehen, Dermau eta Lezalde hirigintza sektoreen egoera erregularizatzeko plana onartzea eta garatzea.

Beikolarreko plana onartuta

Beikolarreko Plan Berezia behin betiko onartu du Altsasuko Udalak, horrela Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioerikiko Auzien Salaren martxoaren 15eko 127/2017 epaia betetz. Udalak onartutako erabakiari helegiteak aurkezteko aukera dago. Geroa Baik aldeko botoa eman zuen eta EH Bilduk kontrakoak. Javier Ollo Martinez alkateak bilkuran azaldu zuenez, "argi dago denok honen kontra gaudela. Inork ez du estrategikotzat jotzen Beikolarren bizitegi erabilera garatzea, baina epaia dago". EH Bilduko bozeramaile Javier Paz Miñok gaia "nahaspila" gisa definitu zuen, eta alkateak bat egin zuen harekin. Pazek gaineratu zuen: "garbi dago sektorea garatu behar dela, epaia horretara behartzen gaitu".

Koalizioak, kontrako botoa ematean, argudiatu zuen sektorea garatzeko parte hartze prozesuarekin ez zegoela ados, "egin beharreko administrazio tramitazioa egitera mugatu da udala, eta auzokideen iritzia ez da kontuan izan". Alkateak salatu zuenez, "2019ko agorrilaren 19tik Beikolarren gaia aztertu den batzordeen bilera batean ere ez da egon EH Bildu. Onerako eta txarrerako, ordezkatuta gauden bi talde politikoei iragan bat dugu udalean eta, arduragatik... Estrategikoki onargarria da ezezkoa, etikoki..." Pazek gaztigatu zuenez, "ekarpenak ditugunean egiten ditugu. Eta bilertara ez bagara etorri da udalez kanpo lana eta beste egin behar batzuk ditugulako". Gaztigatu zuen batzordeen bilerak 17:00etan edo goizez jartzen direla, aurreko legegintzaldian 19:00etan zirenean. Ollok erantzun zuen "politikan kasualitate gutxi" daudela.

Bestalde, Nafarroako Gobernuak Ingurumeneko zuzendari nagusi Pablo Muñoz Trigok ebatzi zuen Beikolarreko Plan Bereziak ez duela ondorio nabarmenik sortzen ingurumenen. Beraz, "aldaketa txikia da, eta ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatua baino ez du behar". Muñozek ebatzi du autobioiko trafikoko zarataren kontrako babes akustikorako neurriak hartzea, eta gau giroa babesteko, errepedetako eta oinezkoen bideetako argiak legeak dioen moduan jartzea.

Oinezkoek lehentasuna izanen duten espazioa

Horixe aurreikusitako Uharteko Udalak Erreka kaleko lanak zirriborraztean. Udaletxe eta San Joan plazak batuko lituzke. Uhartearrekin definitu nahi du kalea eta espazio hori udalak. Izan ere, proiektua idazteko dago oraindik

UHARTE ARAKIL

Uharteko Udalak Erreka kaleko hornikuntza, saneamendu, euri ur eta zerbitzuen kanalizazio sarean eta zoladura berrituko ditu. Obren proiektua idazteko eta zuzendaritza fakultatiboa egiteko zerbitzua kontratatzeke, bai eta obra horien segurtasuna eta osasuna koordinatzeko deialdia egin du Uharteko Udalak. Lan horiek bere gain hartzen dituenak 49.840,24 (BEZ kanpo) euro jasoko ditu haien truke.

Geltoki kalearen eta Erdi Aroko zubiaren artean 325 bat metro luzera du Erreka kalea. Lanen eraginez Uharteko Udalak Alde Zaharra egituratzen duen kale nagusiaren urbanizazioa guztiz aldatuko da. Txomin Uharteko Baleztena alkateak azaldu duenez, "lanen memoriak irailaren 23rako egina egon behar du. Ordurako uharterren ekarpenak jasotzeko nahi ditugu. Baina ez "nire etxe pare horrela nahi dut". Baizik eta kale guztia kontuan hartuko dutenak. Jendeak iritzia emateko modua bilatuko dugu". Alkateak azaldu duenez, erabakitzekean artean leudeke, besteak beste, kale guztia maila berean egon beharko lukeen, koskadun espaloia egin behar den, ibilgailuen aparkalekuak non eta nola jarri... Erreka kalea urbanizatuko den lehena izanen da, eta, beraz, gainontzeko kaleen urbanizazioerako eredu bihurtu daiteke.

Oinezkoak

Erreka kalea udaletxea, eliza, plaza eta establezimendu batzuk hartzen ditu. Hori kontutan izanda, udalean aztertzen ari dira udaletxe eta San Joan plazaren artean espazio jarri bat sortzea eta hori oinezkoek lehentasuna izatea. Horrek Erreka kalearen 60 bat metreri eraginen lioke. Espazio hori eta kalearen gainontzeko zatia bereizteko konponbidea izan daiteke batean eta



Udalak kalearen zati honetan oinezkoen lehentasuna eman nahi lieke. ARTXIBOA

URBANIZAZIOA NOLAKO IZANEN DEN ZEHAZTEKO PARTE HARTZEA SUSTATU NAHI DU UDALAK

bestean lurrean material desberdinak jartzea.

Uharteko gogorarazi duenez, "San Joan plazari buruzko parte hartze prozesua egin zen eta parte hartu zutenek proposatu zuten frontoia, eskola eta plaza hartuko zuen espazio bat sortzea, oinezkoek lehentasuna izanen luketena, eta hurrek kezkarik gabe ibiltzeko aukera luketeena". Bestalde, lege aldaketa ere indarrean sartu da eta ibilgailuek herriguneetan gehienez ere 30 km orduko abiadura har dezaket.

Sareak

Kalearen izenak berak adierazten duen moduan, bertatik erreka bat pasatzen da. Hain zuzen Itxesi erreka pasatzen dena, baina lurpetik kanalizatuta zeharkatzen du herria, hegoaldetik iparraldera. "Azaleko" lurpera-

tzea edo kanalizazioa dago egina gaur egun. Berrikuntza lanak egitean, kanalizazioaren goiko alde berrituko dute. Gainera, erreken presentziak ez du sarearen harguneak kalearen alde batetik bestera pasatzen utziko, eta, geroz, kaleko sareak eta kanalizazioak berritzean bikoiztu egin beharko dira, erreken alde banatan jarritz.

Ur eta saneamendu sareak 60 urte baino gehiago ditu. Ur hodiak mikroamentuzkoak dira eta harguneak berunezkoak. Hainbatetan ur ihesak izaten dira. Egungoen ordez, fundizioko hodiak jarriko dituzte, suteetarako harguneak jarriko dituzte eta etxeen parean, erregistroak. Saneamendu sarea berritzeko PVCzko hodiak erabiliko dituzte. Mantentze egokia egiteko putzu gutxi dituzte, gehiago eginen dira.

Bestetik, euri urak kanalizatutako erreka eramanen dituzte, bai teilatuetakoa. Argindar, telekomunikazioko eta argiteria publikoko lineak etxeetako fatxadetan daude gaur egun. Etorkezunean, berriz, lurpetik pasako dira, horretarako kanalizazioak eginen baitira.

Kalistenia zer den jakin nahi duzu?

ARIKETA FISIKOA Mank-eko Sakana Eskualde Aktiboa Zerbitzuak kalistenia tailerrak antolatu ditu abuztuan Altsasun, Etxarrin, Arbizun eta Irurtzunen, 12 eta 16 urte bitarteko gazteendako. Dohainik da, baina abuztuaren 6a baino lehen eman behar da izena

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

"Kalistenia ariketa fisiko multzo bat da eta nork bere gorputzaren pisua erabiliz, hainbat gihar indartzen dira". Horrela definitu du kalistenia Mank-eko Sakana Eskualde Aktiboa Zerbitzuak, abuzturako antolatu dituen tailerren berri emateko unean.

Jakina denez, Sakanako biztanleria gero eta aktibo eta osasuntsuagoa izatea nahi du Sakanako Mankomunitateak, eta, horretarako Sakana Eskualde Aktiboa Zerbitzua jarri du martxan. Hain zuzen ere, zerbitzu honetako jarduera fisikorako orientatzaileak, Dani Echávarri Manjónek gidatuko ditu kalistenia tailerrak. Ekimena 12 eta 16 urte bitarteko gazteei bideratuta dago, eta ordu bateko ikastaroa izanen da, doakoa. Zerbitzuak nabarmendu duenez, "berdin du zein den izena ematen dutenen maila fisikoa".

Sakanako Mankomunitateko kirol teknikari Amaia Gerriko goitiak azaldu duenez, nerabeen artean inkesta bat egin zuten, nerabeek kirolen alorrean zituzten interesen berri jakiteko, eta gazteek aipatu zuten artean kalistenia zegoen. "Geroz eta parke gehiago daude barrak eta halako elementuak dituztenak, jendeak ariketa egin dezan. Esaterako, Arbizun, Kattuka haur eskolaren parean, adineko jendeari bideratutako aparatuek jarri dituzte, haiek kirola egin dezaten, eta, horretaz gain, barrak eta halako aparatuak jarri dituzte, gazteagoek kalistenia ariketak egin ditzaten" aipatu du.

Lau saio, dohainik

Kalistenia lau saio antolatu dituzte. Lehena Altsasun izanen da, abuztuaren 9an, astelehenerekin, 17:00etan, Dantzaleku atletismo pistan. Bigarren saioa Etxarri Aranatzek hartuko du, abuztuaren 10ean, asteartearekin, 17:00etan igerilekuan. Hiruga-



Arbizuko kalistenia eta ariketa fisikorako parkea. Bertan egingen da Arbizuko saioa.

arren saioa Arbizun izanen da, abuztuaren 11n, asteazkenarekin, 17:00etan Kattuka ondoan dagoen Kalistenia parkean. Eta, azkeneko saioa Irurtzunen prestatu dute, abuztuaren 12an, ostegunarekin, 17:00etan, igerilekuan.

Izena ematea

Kalistenia tailerretan izena emateko Sakana Eskualde Aktiboa Zerbitzura jo behar da (608 697 550 edo aktibatu@sakana-mank.eus), abuztuaren 6a baino lehen. Dohainik.



Dani Echávarri, Urdiaingo Ttipi-Ttapa paseo taldearekin. UTZITAKOIA

Ttipi-Ttapa paseoak eta arreta

Sakana Eskualde Aktiboa zerbitzuko Dani Echavarririk norberaren beharrei egokitutako jarduera fisikoa aukeratzen laguntzen die sakandarrei, dohainik (608 697 550 telefonora deitu). Ttipi-Ttapa paseo osasuntsuak gidatzen ditu Urdiainen, Bakaikun, Iturmendin, Lakuntzan, Arbizun eta Etxarrin, eta aurki Uharten eta Irurtzunen.



Burundak goi mailako erremonte partidak hartuko ditu. EUSKAL JAI REMONTE FUNDAZIOA

Nafarroako Erremonte Torneoak geldialdia egingen du Altsasun

ERREMONTEA Larunbatean eta igandean XVI. Nafarroako Foru Komunitatea Torneoko final laurdenak jokatu dira

Altsasuko Burunda pilotalekuak XVI. Nafarroako Foru Komunitatea Erremonte Torneo-Magna Sari Nagusia Torneoko final laurdenetako kanporaketa hartuko du. Hiru bikote ariko dira lehian: Zeberio II.a-Ion, Ezkurra II.a-Barricart eta Aldabe-Saldias.

Larunbatean, 19:30etik aurrera, hiru bikoteak hiruren kontra ariko dira, 20 tantotara jokatuko diren hiru partida jarraituetan, trianguluarrean. Eta, igandean, 19:00etatik aurrera, bezperako trianguluarrean lehen eta bigarren postuetan sailkatutako bikoteek final laurdena jokatuko dute, 35 tantotara. Aurretik, jaialdia zabaltzeko, binakako partida bat jokatuko da.

Jaialdia Euskal Jai Remonte Fundazioak antolatu du, hainbat babesleren laguntzarekin, Altsasuko Udala eta Pilotajauku Altsasu pilota kluba tartean. Erremonte sustatzeko ekimena da.

Jakina denez, Altsasuko kirol eskola eskaintzen artean aurten erremonte eskaini da, lehen aldiz. Sarrerak 5 eurotan jarriko dira salgai, jaialdia hasi baino ordu erdi lehenago, eta jasotakoa Josefina Arregi Klinikara bideratuko da.

Masters CaixaBank Etxarrin

Udako Masters CaixaBank Torneoako 3. jardunaldiko partida bat Etxarri Aranatzek jokatu du, uztailearen 30ean, ostiralarekin, 22:00etatik aurrera. Joseba Ezkurdia arbizuarrak eta Imazek Elezkano II.a eta Mariezkurrena II.a izango dituzte aurkari. Aurretik, Joanes Bakaikoa etxarriarrak Aretxabaletarekin osatuko du bikoa, Salaberriaren eta Ladis Galarzaren kontra jokatuko.


Aurretiazko sarrerak salgai daude, 20 eurotan, Etxarri Aranzko udaletxean.

Markel garaile 3x3 torneoan

SASKIBALOIA 12 eta 15 urte bitarteko 18 saskibaloijokari inguruk parte hartu zuten Ziordiko torneo solidarioan. Ekimenean, 14 gaixotasun ultra arraroa duen Markel Carmona hauraren aldeko zozketarako txartelak saldu ziren eta Aurrera Markel Carmona fundazioarendako 560 euro jaso ziren. Irailaren 5ean egingo da Markelen aldeko zozketa.



UTZITAKOIA



Gasanz eta Bereziartu, Bargagainen.

1. Bargagain Igoerarako izena ematea zabalik

MENDI LASTERKETAK

Irailaren 4an, Altsasuko plazatik abiatuta, gurutzera igotzea da erronka

Dantzaleku Sakana Atletismo Klubak, hainbat babesleren laguntzarekin, mendi igoera berezia antolatu du irailaren 4rako: Altsasuko 1. Bargagaingo Igoera-Hotel Izelai Sari Nagusia.

Joan den urtean Jabi Gasanzek eta Jokin Bereziartuk 21 ordu eta erdi pasako denbora tartean 12 aldiz igo eta jaitsi zuten Bargagain, eta ekimenak interes berezia piztu zuen.

Irailaren 4an, Altsasuko plazatik abiatuta (528 m.), Bargagaingo gurutzeraino (1.153 m.) igotzea izango da helburua (4,2 km). Proba goizeko 10:00etan abiatuko da, eta banakako eta taldekako lasterketa izango da. Izena ematea zabalik dago www.herrikrosa.eus webgunean (10 euro).

Tritoiako 200 tokiak agortuta

Abuztuaren 29an jokatu da V. Tritoiena traila, Dantzaleku Sakana Atletismo Klubak eta Arbizuko Kanpinak antolatuta. 20,6 km eta 1.053 metroko desnibel positiboa duen mendi lasterketa ikusgarria da Tritoiena, Beriain erdigunea duena eta Arbizuko kanpina abiapuntu eta helmuga. Dagoeneko agortuta daude antolakuntzak prestatutako 200 tokiak. Soilik itxaron zerrendarako izena eman daiteke, www.herrikrosa.eus webgunean.



Udako triatloi campuseko 34 gazteak, hiru monitoreekin. Gehienak bihar Urdiaingo igerilekuetan jokatuko den proban ariko dira.

Campuseko 34 gazteak Urdiaingo triatloiari begira

TRIATLOIA Mank-ek antolatuta, Sakanako XIX. Nafar Kirol Jolasen Triatloia jokatuko da bihar, larunbata, Urdiaingo Aitziber igerilekuetan, goizeko 10:00etatik aurrera. Guztira 100 gazte lehiatuko dira, horietatik 30 inguru Sakanako triatloi campuseko partaideak

Maidier Betelu Ganboa URDIAIN / SAKANA 2019an jokatu zen azken aldiz Sakanako Haur Triatloia, Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatuta. Pandemiagatik joan den urtean ez zen jokatu, baina aurten indarberrituta itzuliko da proba, Sakanako XIX. Nafar Kirol Triatloia izena hartu duena eta Urdiaingo igerilekuetako inguruko paraje ikusgarrietan gauzatuko da.

Sakanako Mankomunitateko kirol teknikari Amaia Gerrikagoitiak azaldu duenez, 100 neska-mutiko lehiatuko dira, benjaminetatik jubenetara bitartean. Izena ematea Nafarroako Triatloi Federazioan egin beharra zegoen. Parte hartuko duten 100 triatleta horietatik 30 inguru Sakanako udako triatloi campusean parte hartzen ari diren neska-mutikoak izango dira.

Bihar, 10:00etatik aurrera

Goizeko 10:00etan hasiko da Sakanako XIX. Nafar Kirol Triatloia, Urdiaingo Aitziber igerilekuetan.

Igerilekuaren ondoko paraje ederretan jokatuko da proba: Saraben, San Pedron eta Urriztin. Jubenilak eta kadeteak batera abiatuko dira goizeko 10:00etan, baina 9:30etarako igerilekuetan egon beharko dute, material kontrola pasatzeko. Jubenilek Urdiaingo igerilekuetan 18 luze egingo dituzte, bizikletan 8 km (prestatutako zirkuituari 2 itzuli) eta, bukatzeko, korrikako zirkuituari bi buelta eman, 2,2 km osatuz. "Azkeneko edizioan jubenilen, kadeteen eta haurren mailako bizikleta sektorean aldaketa egin genuen. Sarabera joan beharrean, San Pedron eta Basoixian, Dameroan, prestatu zen zirkuitua. Arrakasta handia izan zuen, oso ederra baitzen,

"CAMPUSAREKIN ETA BIHARKO SAKANAKO TRIATLOIAREKIN OSO POZIK GAUDE" AMAIA GERRIKAGOITIA

eta aurten ere nagusien bizikleta sektorea bertan egingo dugu" azaldu du Gerrikagoitiak. Korrikako sektorea Urriztin barna egingo dute aipatu kategoriek.

Haurren mailako lasterketa goizeko 11:25ean abiatuko da (10 luze igerilekuan, 4 km zirkuituari buelta bat, bizikletan, eta 1,1 km-ko zirkuituari buelta bat, korrika) eta kimuen mailakoa 12:30ean (8 luze, 3 km-ko zirkuituari buelta bat bizikletan eta 750 metroko zirkuituari buelta bat, korrika). Bukatzeko, benjamin mailako neska-mutilak 13:15ean hasiko dira. Urdiaingo igerilekuan 4 luze egingo dituzte, bizikletan 1,5 km-ko buelta eta korrika 350 metro osatuko dituzte. Benjamin mailako bizikleta sektorea Saraben gauzatuko da, eta korrikako sektorea Urriztin.

34 gazte triatloi campusean

Uztailaren 12an hasi zen Mank-ek antolatutako Sakanako udako triatloi campusa, gaur, ostirala,

despedituko da, eta sekulako arrakasta izan du. "34 neska-mutikok eman dute izena, eta hirugarren monitorea bat kontratatu behar izan dugu inor kanpoan ez uzteko. Balorazioa oso ona da, oso pozik gaude" aipatu du Amaia Gerrikagoitia kirol teknikariak. Maalen Beraza Etxarri, Oihan Soto Satrustegi eta Ekhi Congil Mendiola dira triatloi campuseko monitorea, eta Hegoi Lakuntza Zelaia altsasuarra laguntzailea da, boluntario.

Gorakada, eta pozik

Altsasuko Zelandi igerileku estalietan, Dantzalekun, Urdiaingo igerilekuetan eta inguruko txoko ederretan entrenatzen dute igeriketa, bizikleta eta atletismoa edo korrika batzen dituen kirola. "Aurten gazte asko animatu dira, joan den urtean baino askoz ere gehiago" azaldu du Maalen Berazak. "Gustura datoz campusera, ongi pasatzen dute" gaineratu du Oihan Sotok. Askok larunbateko Sakanako Nafar Kirol Jolasen Triatloian parte hartuko dute.

Ekhi Congilek monozikloa alde batera utzi du, eta mendi bizikletan dabil, gustura. "Lehenengo aldian da triatloi eskolako monitorea naizela. 2017an boluntario aritu nintzen. Orduan zer ikasi erabakitzen ari nintzen eta hemen praktikatu batzuketan egin nintzen, oso gustura. Aurten ere monitorea gisa oso gustura nabil" nabarmendu du.

Arrizabalaga eta Razkin Almazanen

Eskola Adineko Autonomien Arteko Espainiako Triatloi Txapelketak jokatu ziren asteburuan Almazanen. Kadeteetan Hector Tolsa (Valencia) izan zen Espainiako txapelduna (21:12), eta Alain Razkin Andueza lakuntzarra 43. sailkatu zen (24:50). Haurren mailako talde mistoen txapelketan Nafarroa 9. postuan sailkatu zen (1:54:41). Mikel Arrizabalaga Garziandia altsasuarra zegoen taldekideen artean.

"Garaipen honek beste lasaitasun bat eman dit"

AILETZ LASA LIZARRAGA TXIRRINDULARIA

TXIRRINDULARITZA Ziordiarak afizionatuen mailako bere lehen garaipena lortu du: Dorletako Ama Saria. Madrilgo Itzulian eta Nafarroako Erlojupekoan lan ona egin nahi du

Maidar Betelu Ganboa ZIORDIA

2019an Laboral Kutxarekin debutatu zuen afizionatuen mailan Ailetz Lasa Lizarragak, eta igandean afizionatuen palmaresa mustu zuen, Leintz-Gatzagak XLIII. Dorletako Ama Saria irabazi eta gero. Garaipenak airea eman dio, eta dituen sentsazio onak aprobetxatuz, lan ona egiten jarraitu nahi du.

Igandea egun garrantzitsua izango zen, ezta?

Bai. Aurtengoa Laboral Kutxa-Euskadi Fundazioarekin afizionatuen mailan daramadan 3. urtea da, eta garaipen hau iristea handia izan da; lortutako emaitzarekin oso pozik nago.

Dorletako Ama Saria goitik behara kontrolatu zenuten Laboral Kutxa-koek. Guztia irabazi zenuten: lehen hiru postuak, talde onenaren saria, tarteko helmugena, eta zuk, lasterketa irabazteaz gain, mendiko txapelketa irabazi zenuen.

Bai, egia da talde oso ona eraman genuela. Hasierako ihesaldiak kontrolatu genituen eta lasterketa erdialdetik aurrera gu izan ginen erasoak jo genituenak. Xabier Isasa eta Ibai Ruiz de Arkaute taldekideekin aurrera egitea lortu nuen, eta azkenean Isasa eta biok batera iritsi ginen helmugara. Garaipena nire aldera erori zen, eta hirugarren



Ailetz Lasa garaipena ospatzen, helmugan, atzean Isasa taldekidea duela. UTZITAKOA

gure taldekide Unai Iribar sartu zen. Triplete ederra lortu genuen.

Esprintetan ongi moldatzen zara.

Esprintetan sartzea gustatzen zait, egia esan, eta batzuetan emaitzetan ikusten da.

Afizionatuen mailako lehen garaipena lortzeak airea eman dizu? Nolabaiteko presioa kendu duzu gainetik?

Nolabaitekoa. Afizionatuen mailako lehendabiziko bi urteetan gehienbat besteendako lana egitea tokatu zitzaidan. Denboraldiko erdialdetik aurrera sentsa-

zioak hobetzen joaten dira, eta aurten postu hobeak egiten ari nintzela eta sentsazio hobeak nituela ikusten ari nintzen. Eta, egia esan, igande honetako garaipenak beste motibazio bat ematen dit.

Aurten zure denboraldirik onena egiten ari zara. Igandeko garaipenaz gain, ekainaren 6an Ataunen jokaturako Euskadiko Linea Txapelketan txapeldunordea izan zinen. Bi podium garrantzitsu dira.

Bai. Aurreko urtea pandemia-rengatik urte hain arraroa izan zenez, aurten beste motibazio

batekin prestatu dugu denboraldia. Denboraldi hasieran pixka bat kostatzen zait beti, baina buelta eman nion eta askoz ere hobeto nago orain. Emaitzetan ikusten da hori. Talde gisa ere, oso ongi gabilta.

Laboral Kutxakoek garaipen garrantzitsuak lortu dituzue aurten. Taldekideak ere ongi dabilta, eta afizionatuetan mailako gorenean zaudete, Lizarte eta Rural Kutxa taldeekin batera.

Egia da Euskal Herriko lasterketetan eta kanpokoetan ere emaitza dezenteak lortu ditugula. Garaipen ederrak lortu ditugu, eta, gainera, txirrindulari ezberdinekin. Lizarte eta Rural Kutxa taldeekin batera, nahiko berdintsu gaude.

Burunda klubean trebatu zinen eta aurten Burundatik afizionatuetera igo den taldekide bat duzu, Iker Mintegi altsasuarra. Madrilgo Itzulian ariko zarete elkarrekin.

Txikitatik ezagutzen nuen Iker. Klub berean egon ginen, Burundan. Gaur egun berarekin taldea partekatzea oso ongi dago. Berarekin harremana dut, elkarrekin entrenatzen gara eta elkarrekin ariko gara Madrilgo Itzulian, bihartik, asteazketatik (elkarrizketa bezperan egin zen, asteartean) igandera arte. Lehen, profesional mailakoa zen itzuli hau, baina aurreko urtean pandemiarengatik ez zen jokatu. Aurten, profesional mailakoa izan beharrean, 23 urtez azpikoa izatea erabaki dute.

Horrek ez dio lasterketari gogortasunik kenduko.

Inola ere ez. Gainera, bero handia iragartzen dute, eta berez nahiko gogorrak diren etapak okerragoak izango dira. Itzuli gogorra egingo da.

Zein da helburua? Zer ekarri nahi zenukete Madrildik?

Talde oso ona daramagu, zer edo zer egiteko aukerekin. Ni neu oso ondo nago, sentsazioz ere oso ondo, eta ea zerbait polita egiteko aukera dugun. Nik uste dut talde gisa zerbait egiteko aukera dugula. Gogotsu goaz, ea zer ateratzen den.

Madrilgoaz aparte, zein dira denboraldiko beste helburuak? Probaren bat begiz jota duzu?

Madriken ondoren, Murchanten, Nafarroako Erlojupeko Txapelketa jokaturako dugu, gero Kantabriako Itzulia, eta segidan Valentziako Itzulia. Abuztuan eta irailean Euskal Herrian lasterketa asko ditugu aurretik. Horiak aprobetxatu, eta ea zer edo zer gehiago ateratzen den.

Nolako txirrindularia zara? Nola definituko zenuke zeure burua?

Portuak igotzen, erritmoko igoerak ongi igotzen ditut; lautadan eta esprintetan oso ongi defendatzen naiz. Txirrindulari nahiko osoa naiz.

Pentsatzekoa da profesioletara saltoa ematea nahiko zenukeela. Pauso hori ematea zaila izango da. Nola ikusten duzu?

Zaila da. Profesioletara pasatzea txikitatik dudan ametsa da; emaitzak ateratzen ari dira behintzat, baina oraindik lanean segi beharko dugu eta gauza gehiago demostratu. Lasterketa bat irabaztea oso zaila da; igandean lortutako garaipen honek beste lasaitasun bat ematen dit, baina lanean segitu beharko dut eta denboraldia ahal bezain hobekien bukatu.

"PROFESIOLETARA PASATZEA TXIKITATIK DUDAN AMETSA DA; ORAINDIK LANEAN SEGI BEHARKO DUGU"

Brontzezko domina Nahia Imaz altsasuarrarendako

TXIRRINDULARITZA Junior mailako Espainiako Erlojupekoan 3. sailkatu da eta lineako proban 4.

Eskola Adineko eta Junior Mailako Espainiako Txirrindularitza Txapelketetan, Madriken, Nafarroako selekzioarekin hainbat sakandar aritu ziren: haurren mailan, Burundako Ekain Imaz eta Ekaitz Perez; kadeteen mai-

lan, Burundako Mikel Regil eta Aralarko Manex Zufiaurre; eta, junior mailan, Burundako Mikel Unzilla eta Hugo Aznar, -Korteko, izatez-, Aralarko Jon Erdozia eta Unai Garro eta Ermitagaña Nafarroako Nahia Imaz.

Guztiekin primerako lana egin dute, baina Nahia Imaz altsasuarra eta Hugo Aznar kortestarrak egindako lana azpimarratzekoa da. Nahia Imaz 3. sailkatu zen Espainiako junior mailako erlojupekoan (26:40), bere taldekide Laia Puigdefabregas txapeldunetik (25:47) ia minutura, eta lineako proban 4. sailkatu zen, bere taldekide Naroa Fernandez txapeldunetik 3 segundora. Hugo Aznarrek zilarrezko bi domina lortu zituen, bat erlojupekoan eta bestea lineako lasterketan.



Hugo Aznar eta Nahia Imaz, Laia Puigdefabregas eusten. NAFARROAKO FEDERAZIOA

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN
BERRI ASTEAZKENEN EGUERDIA
BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 /
kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 23

BAKAIKU Haurrendako tailerrak.
3 eta 8 urteko haurrendako.
18:00etan, Bakaikuko plazan.

ALTSASU Kultur 2021. Flaming
Shakers Beatles tributu
taldearen kontzertua.
20:00etan, Iortia zabalgunean.

LARUNBATA 24

LAKUNTZA Jorge Sanchez
bakarlariarekin Silvio
Rodriguezen kantak.
18:30ean, plazan.

BAKAIKU Elektrokela
Elektrotzaranga.
18:30ean, plazan.

ARBIZU Alaitzen: udako kultur
egitaraua. Tor magoaren
ikusizuna.
Arbizuko Udalak antolatuta.
19:00etan, plazan.

BAKAIKU Zortzikoa eta kalejira
txistulariekin.
19:30ean, plazan.

ALTSASU Nafarroako XVI.
Erremonte txapelketa 2021ko
Magna Sari Nagusia laurdeneko
kanporaketa triangeluarra:
Zeberio II - Ion / Ezkurra II -
Barricart / Aldabe - Saldias.
Josefina Arregi klinikaren alde. 5
euro.
19:30ean, Burunda frontoian.

IGANDEA 25

ALTSASU Linza-Atxerito ibilbide
zirkularra eginen du Altsasuko
Mendigoizaleak taldeak.
06:00etan, egoitzan.

BAKAIKU Txorongo Txaranga.
12:30ean, herrian zehar.

ALTSASU Nafarroako XVI.
Erremonte txapelketa
2021ko Magna Sari Nagusia
lehen partida, binakako
partida, bigarren partida
eta triangeluarreko lehen
eta bigarren sailkatutako bi
bikoteak.
Josefina Arregi klinikaren alde. 5
euro.
19:00etan, Burunda frontoian.

BAKAIKU Kalejira Sakanako
trikitilariarekin.
19:30ean, plazan.

ALTSASU Euskal Presoak Euskal
Herrira elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 26

ALTSASU Pentsio duinen aldeko
elkarretaratzea.
12:00etan, udaletxearen aurrean.

ASTEAZKENA 28

ETXARRI ARANATZ Denok
Atxonodoko Akanpadara!
AHTaren aurkako bizikleta
martxa: Etxarri Aranatz-Etuba
ibilbidea.
08:00etatik aurrera, plazatik.

OSTEGUNA 29

IRURTZUN Bakea eta bizikidetza
lantzen dituzten liburutegiak.
Eskuak zabalik, hau eskubide
bat da tailerra.
11:00etan, liburutegian.

ETXARRI ARANATZ Nikotina eta
Xskara taldeen kontzertua.
21:00etan, plazan.



ZURE INFORMAZIOA HEMEN!

BELEIXE IRRATIA,
GUAIXE ASTEKARIA
ETA GUAIXE.EUS



BAZKIDE EGITEKO:
GUAIXE.EUS/HARPIDETZA



**DEKOVEN
NAVARRA**
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovenavarra.com
www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · ALTSASU
Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZA

Irurtzango Pikuxar taberna berria lan egiteko sukaldari bila: Sukaldari lanpostu kontratua eta nomina sektoreko hitzarmenaren lanbide-kategoriaren arabera eskaintzen da. Jarrera proaktiboa, lanean autonomia eta txandaka lan egiteko prestutasuna, beharrezkoak dira. Euskararen ezagutza eta sukaldaritzan esperientzia frogatua baloratuko dira. Interesatuak bidali Cva pikutaberna@gmail.com helbidera. Deialdia hutsik gero liteke hautagaiak espero diren baldintzak betetzen ez badituzte.

IKASTAROA

'Altsasu mugitzen da' helduendako ariketa fisiko programa: Autonomia sustatzeko eta mendekotasunari aurrea hartzeko programa. Zailtasunak dituzten 70 urteko gorakoentzat pentsatua. Ikastaroa Irailaren 15etik azaroaren 5era arte izango da bi txandatan: 1. Taldea 10:00etatik 11:15era eta 2. Taldea 11:30tik 12:45era. Izen ematea abuztuaren 30etik irailaren 6ra, Altsasuko udal kiroldegian (948 562 786) edo Josefina Arregi klinikian (948 563 850). Prezioa 15 euro. Altsasuko Udalak Josefina Arregi klinikarekin lankidetzan sustatutako programa eta Nafarroako Gobernuak finantzatua.

Adinduendako ariketa fisikoko tailerra: Adindu

hauskorren gainbehera funtzionala eta erorikoak prebenitzeko ariketa fisikoaren profesional batek gidatuta. Etxari Aranazko Osasun Zentroan ostiralean, 16:00etan. Informazio gehiago www.sakanamank.eus webgunean.

Oinarritzko gaitasun digitalak doako ikastaroa Irurtzunen: Irailaren 20tik 24ra, goizeko 9:00etatik 14:15era. Kultur etxean. Informazioa eta izen ematea 948 600 412 ifnoan.

OHARRAK

Irurtzunen Udako tailerra euskaraz: Abuztuaren 2tik 13ra, 11:00etatik 13:00etara. 2009 urteko 2016 urtera bitartean jaiotakoak barne. Bi talde egiten dira A eta D ereduaren banatuta. Izen emateko epea uztailearen 15ean amaitzen da Martxuetan izena eman eta 20 euroak ere bertan ordaindu. Aizpea elkarteak antolatuta.

Nafarroako Filmotekaren Gure oroimenaren fotogramak ekimena: Nafarroako Ondare Filmografikoa bildu, digitalizatu eta zaintzeko asmoarekin, Filmotekak herri-tarrei deia egiten die etxean izan dezaketen materiala dokumentatu nahi duelako. Material orok balioa duela jakinarazi nahi dute (kamerak, proiektoreak, aldizkariak, gidoiak, bobinak, VHS, Betacam, DVDak, filmak...) Bi aukera daude materiala uzteko; Gordailua (Epe baterako uzten

da, material digitalizatua-ren kopia bat ematen zaio gordailugileari, eta nahi duenean berreskura dezake bere materiala artxibotik) eta dohaintza (materiala ezin da artxibotik jaso, artxiboari ematen zaizkio eskubideak, material digitalizatuaren kopia bat ematen zaio dohaintza emaileari). Galdetu zure herriko liburutegian, han emango dizute informazio gehiago, beraiek egingo dute bitartekari lana eta. Edo deitu Nafarroako Filmotekako Artxibora 848 424 750 (filmoteca.archivo@navarra.es) edo Liburutegi Zerbitzura 848 427 784 (cflamarg@navarra.es).

ETB1en "Zurekin Bat" lehiaketa berria: Galdera-erantzun formatuko saioa izango da. Lau kideko bi talde arituko dira lehiari nor bere ametsa betetzeko asmoz. Egune-ro jokoan dauden 800 euroak irabazi eta programaren zaku potoloa eramatea izango da. Taldekideek (familia, koadrila, lankideak, pisukideak, kirolari taldeko kideak...) haien jakituria neurtzeko aukera izango dute. Lehiaketa astelehenetik ostegunera izango da ikusgai. Izena emateko deitu 618 553 423 edo idatzi zurekinbat@k2000.com helbidera. Animatu eta ez galdu izena emateko aukera!

AHTren kontrako bizikieta martxa Iruñatik Atxondoko kanpaldira: Hiru etapen egingo da; uztailearen 28an Iruñetik Etxari Aranatz, uztailearen

29an Etxari Aranatz-Etura (Barrundia) eta uztailearen 30ean Etura-Atxondoko. Eraman beharrezkoak (lo zakua, esterilla, aldatzeko arropa eta kanpaldian gelditu behar denak, behar duena ere) laguntza kamioiak eramango ditu etapen amaieran emateko. Otorduak hiru egunetarako 30 euro, egun baterako 12 euro. Prezio hauetan ez da kanpaldia sartzen. Bizikletak Iruñera bueltan eramango dira kamioiez igande arratsaldean, abuztuaren 1ean. Partehartzaileak antolakuntzaren ibilgailuetan bueltatuko dira. Izena emateko 675 613 651 ifnora deitu edo ahtrikeznafarroa@gmail.com helbidera idatzi. Argibide gehiago kanpaldia-ri buruz <http://noaltavahtgelditu.blogspot.com> helbidean.

Egile berrientzako XXXI. Euskarazko literatura lehiaketa: Iruñeko Udalak antolatuta, poesia eta narrazio modalitateak izango dira. Egileek lan bana aurkezten ahaliko dute modalitate bakoitzeko. Idazlanek gai librean izan behar dute eta euskaraz idatziak izan behar dute, jatorrizkoak eta argitaratu gabekoak. Parte hartu ahal izateko helbidea Nafarroan izatea eta www.pamplonaescultura.es webgunean dagoen inprimakia betetzea derri-gorrezkoa da, oinarriak webgune horretan kontsultatu daitezke ere, izena emateko epea urriaren 22an amaituko da. Sari hauek ezarri dira

modalitate bakoitzerako: lehen saria: 2.500 euro. Bigarren saria: 1.000 euro. Hirugarren saria: 500 euro eta 250 euroko lau aipamen, gehienez ere. Animatu eta parte hartu.

Erabilgarri ez diren erradiografiak biltzeko kanpaina farmazietan: Nafarroako Farmaziarien Elkargoak eta "Mugarik gabeko Farmazilariak" GKErakundeak bultzatutako kanpainak helburu bikoitza du: batetik, ingurugiroa zaindu, ondo birziklatzen ez diren erradiografiak oso kutsakorrak direlako eta bestalde, duten zilarren salmentarekin Gobernu Kanpoko Erakundearen proiektuetara funtsak bideratzea. Erradiografiak bakarrik eman, sobre, informe eta bestelakoak kendu eta gero. Kanpainak azaroaren 1era arte iraungo du.

Mikel Arregiri buruzko liburua honako tokietan erosi daitezke: Lakuntzan Ogi berrin, Aliproxen eta Estankoen; Etxari Aranatz Xaxeta liburu dendan eta Altsasun Arkatz liburu dendan. 15 eurotan dago salgai.

Arropa biltzeko: Etxari Aranazko boluntario taldeak arropa Elizkorta kaleko bere egoitzan jasotzen du astelehenetan, 17:00etatik 18:30era. Egoera onean dagoen arropa eramane behar da, garbi dagoena. Derrigorrezkoa da maskararekin sartzeko.

Ayuda Contenedores erakundearen material

bilketa berri martxan: Altsasuko Ayuda Contenedores Gobernu Kanpoko Erakundeak material biltzeko egiten hasi da berriz. Denetarik jasotzen dute: arropa, zapatak, eskola materiala, jostailuak, bizikletak, higie-ne produktua, haur oihalak, sendaketak egiteko gazak eta bendak, mantak, ordenagailuak eta beste. Asteazkenetan, azoka egunean, goizeko 10:00etatik 13:00etara egiten dute material biltzeko, Altsasuko Frontoiko Zeharbidearen 14. zenbakiko udalaren bajeran. Poltsak itxita eramane behar dira, eta astebete itxita mantentzen dituzte, berrogeialdian. Egun bereziki Afrikara ari dira bidaltzen hemen jasotako, edukiontzietan.

Mentore bila Altsasun: Gazte migranteeekin egon nahi duten pertsonen bila gabieta: Astean behin, ordutegi malgua. Sei elkarteak (Irtisi berriak diren nerabeen harreran, dolu migratorioaren laguntzean eta gizarteratzean espezializatutako zerbitzua) Interesa duenak 948 239 739 edo 673 329 449 telefonoetara hots egin dezake, edo gestorasocial@asociacionsei.org postara idatzi dezake. www.asociacionsei.org, informazio guztia dago.

iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburra.eus




ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskela@guaixe.eus


- Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 € prezio hauek BEZa bame dute.
- Bazkideek %10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 23




Larunbata, 24



Igandea, 25



Astelehena, 26



JAIOTZAK

• Ainhoa Irina Umanzor Rodriguez, uztailearen 4an Olaztin

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA
UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ
DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU ETXARRI ARANATZ
Santa Cruz, 6 Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70
@Grupolrache
f Grupolrache
🌐 www.tanatoriosirache.es



Txamukos taldea. UTZITAKOA

Mexikoko tradiziozko musika euskalduna

Txamukos taldearen kontzertua izanen da uztailaren 30ean, ostiralean, 20:00etan, Irurtzango Gernika parkean

Erkuden Ruiz Barroso IRURTZUN

"Inguru honetako" jendeari mexikar musika tradizionala asko gustatzen zaiola esan du Beñat Mitxelena Txamukos Mariatxiak taldeko kideak. "Ez dakit zergatik dagoen afizio hori, baina badago". Taldea osatzen duten seikoteari ere gustatzen zaizkio Mexikoko doinuak, eta taldea sortzeko "ideia" eduki zuten. Irurtzango musika parkea programaren barruan taldearen emanaldia izanen da uztailaren 30ean, ostirala, 20:00etan, Gernika parkean.

Lesakako deabruak direla esan daiteke, izan ere, txamukos hitzak Mexikoko hizkuntza zahar batean deabrua esan nahi du: "Ez genekien zer izen jarri, eta azkenean hitz hau aurkitu genuen. Gustatu zitzaigun, eta hori jartzea erabaki genuen". Taldea berez mariatxi talde bat ez dela azaldu du: "Mariatxietan biolinak daude, eta guk ez daukagu biolinik. Normalean ez dute akordeoirik, eta guk badaukagu". Northeñoen taldeekin itxura gehiago dute, nahiz eta perkusiorik ez izan.

Txamukos taldearen bereizgarri nagusia euskarazko abestiak egiten dituztela da. "Betiko Mexikoko abestiak edo mariatxien abestiak, baina euskaraz". Nafarroan rantxerak abesten dituzten talde asko daude, baina euskaraz egiten dituztenak bakarrenetarikoa dira. Horregatik, mariatxi euskaldunak deitu ahal zaie ere. "Abesti propioen bat badugu. Bestela, gustatzen zaizkigun abestiak hartzen ditugu, eta

euskaratzen ditugu". Lana handia bada ere, abesti bat zerotik sortzea baina errazagoa dela esan du.

Arrakasta

Orokorrean, arrakastatsuak izan ohi dira mariatxien kontzertuak. "Ez dakit zer gertatzen den musika mota honekin. Niri betidanik gustatu izan zait ere. Doinu biziak dira, eta letrek kontaktzen dituzten istorioak bitxiak dira: amodio istorioak, batak bestea akabatu duela...". Belaunaldien arteko zaletasun bat da, gainera. "Hamasei urteko gazteak etortzen dira, eta rantxerak kantatzen entzuten ditugu".

Rantxerak, balsak, huapan-goak... Musika mexikar tradizionala jotzen du Txamukos taldeak, bai dantzagarria bai lasai entzutekoa. Pandemia egoeratik, "aldatzen da", baina gustu berberarekin jotzen duela esan du Mitxelenak. "Lehen zen gehiago jendea dantzan, eta trago batzuk hartzen". Orain, beraien burua gehiago estutzen dutela esan du, "jendea erne-erne dagoelako", eta akatsak argi gelditzen omen dira. Kontzertu "kutsu" gehiago hartu dute, "eta ez parrandako emanaldi horiek". Autoexigentzia maila pixka bat igo zaie.

Uztailaren 30ean kontzertua eskainiko dute Irurtzango musika parkean programaren barruan. Aurretik Lizarragabengoan egon ziren, eta "herri osoa" egon zela esan du Mitxelenak. Ziordian ere joko dutela aurreratu du.

Plazaz plaza Sakana ezagutu duen taldea

Trikidantz taldea ezaguna da Sakanan. Ibarreko herri, plaza eta festa gehienetan egon da, eta egoera berezian bada ere, emanaldiak eskaintzen ari da. Aurreko astean Iturmendin egon zen, eta abuztuaren 1ean Bakaikun egonen da

Erkuden Ruiz Barroso BAKAIKU

Sakandarrak izan gabe, Sakanako herri gehienak ezagutzen ditu Trikidantz taldeak. Festaz festa plazak girotzen aritu dira, baita pandemia garaian ere. *Bizitzaz gozatu* lema zabaltzen dute. Aurreko asteburuan Iturmendin jo zuten, eta abuztuaren 1ean, igandearekin, 19:30ean, Bakaikura itzuliko dira. Urtero batez beste 60 kontzertu izatetik, 2020an bi kontzertu ematera pasa ziren, horietako bat Bakaikun. Bigarren diskoaren aurkezpena izan zen. Zaleak bildu dituzte, eta sakandarrak beste herrietan emandako kontzertuetan ikusi dituztela aipatu du Arkaitz Mindegia taldeko kideak.

Mindegia da taldearen sorreratik gelditzen den musikari bakarra. Berak eta bere arreba sortu zuten taldea, duela hogeit bat urte. "Trikitixa eta panderoa jotzen genuen, eta hasiera batean mahai inguruan jotzen genuen, bazkarietan eta afarietan". Pixkanaka taldea handitzen joan zen: abeslaria, bateria jolea eta baxu jolea. Duela hamahiru bat urte talde bezala sortu zela azaldu du Mindegia. "Horrela handitzen joan da, orain arte". Tartean taldekide asko pasatu dira, eta gaur egun Mindegiarekin batera Mikel Fagoaga, Leire Onsago, Odei Berrade eta Eneko San Sebastian musikariek osatzen dute Trikidantz.

Plazak

Trikidantzen egoera naturala festak dira. "Festa giroko" taldea da. "Hasieran trikiti eta pandero erregistro horretan ibiltzen ginen: balsak, kalejirak, jotak eta arin arinak eta abar". Taldea handitu zenean eta batera eta gitarra sartu zituztenean, taldeen bertsioak egiten hasi ziren. Diskoetan konpositore lana egin zuten ere. Bigarren diskoan bertsolarien laguntza izan zuten letrak egiteko. Trikidantzenak dira Baztan-



Trikidantz taldearen kontzertua. UTZITAKOA

darren Biltzarraren 50. urteurrenaren abestia, San Fermin ikastolako oinez kanta eta abar.

Festa giroko musika taldea, eta duela urte eta erdi festarik gabeko pandemia egoera. "Joan den urtean egoera latzagoa izan zen: 60 kontzertu izatetik, bi kontzertu izatera; eta plaza eta festa giroan jendea dantzan, kantatzen eta abarretan ikustetik, eserita ikustera". Esaterako, Lizarrako kanpinean emandako kontzertua aipatu du Mindegia, jendea toaletan etzana eta terrazan kafea hartzen ari zela. "Diskoaren aurkezpen kontzertu batzuk eskaini genituen aretoetan. Arraroa egin zitzaigun jendea ikustea. Jendeak gu ikusteko sarrera eskuratu beharra ere arraroa egin zitzaigun". Buruari bueltak eman dizkiotela aitortu du, "baina egoera honetara moldatu behar ginen, eta moldatu gara". Eszenatokira igotzean bizitzen dituzten sentsazioak "berberak" dira, are gehiago egoera honetan, "ez dira emanaldi asko ateratzen, eta aprobetxatu behar dira".

Jendea gogoz dago, "kultura kontsumitu nahi du", eta eskertzen dute jendearen nahia. "Kontzertu batean merchandi-

ing postura jende asko etorri zen, eta iruzkin asko egin zitzaigun. Sare sozialetan esaten dutenarekin ere indartzen gaituzte".

Errepertorioa

Egoera dela eta, errepertorioa egokitu behar izan dute. Abesti lasaiagoak jotzen dituzte, baina denetarik uztartzen dute. "Bestela, ordu eta erdi edo bi orduko kontzertu batean denak baladak badira, aspergarria izan daiteke". Diskoaren izenburuak dioen bezala, egoera honetan bada ere bizitzaz gozatzeko oihu egiten dute eszenatokitik. Trikitia eta panderoarekin hasi zirenetik duela bi hamarkada inguru, musika estilo asko jorratu dituzte. "Jendeak musika estilo asko entzuten ditu". Musika estilo asko eskatzen ditu ere jendeak. *Goazen* telesailak alderdi positiboa baduela azaldu du Mindegia, izan ere, berari esker, gazte asko euskal musikara gerturatu dira. "Uste dute *Goazene*koak direla kantak, baina aspaldiko euskal taldeenak dira. Haurrek eta gazteek abesti horiek ikasten dituzte".

"Pole Sport-ak dena eman dit"

Etxarri Aranatzen bizi den Graciela Prado Garcia-Jovek istripu baten ondorioz hanka galdu zuen, eta Pole Sport-ari esker segurtasuna eta konfiantza lortu ditu. Engantxatzen duela esan du. Blackflip Pole Sportean entrenatzen du, eta Amaia Beloki da bere entrenatzailea

Erkuden Ruiz Barroso ETXARRI A.

1 Zer da Pole Sport-a?

Amaia: Barra batean elementuak eta akrobaziak egitea da. Mota asko daude: Pole Sport, Pole Dance, Exotic Pole, Ultra Pole eta abar. Elementu askorekin lan egiten dugu: malgutasuna, mugikortasuna, indarra, memoria, koordinazioa...

2 Nola ezagutu zenuen kirol hau?

Graciela: Errehabilitazioa egiten ari nintzela, Ubarminen. Errehabilitazioa egiten zidanak Amaia ezagutzen zuen, eta egitea proposatu zidan. Nik aurretik ez nuen beste kirolik egin. Ibiltzera joaten nintzen, baina kirolik ez. Gainera, hasi nintzenez, ez nuen hanka protesikorik. Ez nuen ezagutu ere egiten, telebistan zerbait aipatu izan dutenean.

3 Zergatik erabaki zenuen egitea?

G.: Lehen, Amaiarekin malgutasuna eta gorputz prestaketa egiten nuen ere. Lehen ez nintzen mugitzen, eta nabaritu dut. Bakarrrik barra eginez mugikortasuna asko hobetzen da. Oso ongi ikusten dut neure burua: konfiantza irabazi dut.
A.: Hasieran, beldur handiarekin etorri zen. Hankagatik esaten zuen ezin zuela egin, eta nik esaten nion baietz, behintzat saiatuko ginela.

4 Noiz hasi zinen?

G.: Duela hiru urte inguru. Tarte honetan geldirik egon naiz ebakuntzak egin dizkidatelako. Orduan, hilabete batez gelditzen nintzen, itzultzen nintzen... Baina urritik gelditu gabe aritu naiz. Astean hirutan etortzen naiz: astear-teetan, ostegunetan eta larunbatean. Ordu eta erdi egun bakoitzean. Gainera, etxean barra daukat, eta ez dut hemen egiten dudana egiten, baina gora eta behera aritzen naiz indarra hartzeko. Konfinamenduan online egiten genuen ere.



Graciela Prado Garcia-Jove Pole Sport egiten.

5 Zer nolako ariketak lantzen dituzue?

A.: Lehenengo egunean beroketak eta gorputz prestaketak egiten ditugu. Oinarriaren arabera izaten da. Ez da gauza bera ezer egin ez duen neska bat edo dagoeneko oinarri batekin datorren bat. Normalean, buruz gora jartzen gara, buruz behera, barra igo...

6 Dirudiena baina errazagoa da?

G.: Ez. Zaila da. Nire kasuan, barran irauten mina hartzen dut. Batzuek hobeto irauten dute indar handiagoa dutelako, beste batzuek gutxiago. Ariketa batzuk errazagoak dira. Bera ikusten duzu, eta erraza dirudi. Baina jartzen zarenean, ez da hain erraza.
A.: Erraza da, baina hasieran uste dute ez direla gai gauza horiek egiteko. Orduan, teknika ikasten zoaz, konfiantza irabazten... Hobekuntzak laster ikusten dira, lehenengo hilabetean.

7 Zer eman dizu?

G.: Niri dena eman dit. Horrelako zerbait gertatzen zaizunean (istripua) pentsatzen duzu: honaino, hemendik aurrera ez dago ezer ez. Oso gaizki nengoen hasi aurretik. Baina niretzako dena izan da. Autoestimua, zerbait egin dezakedala ikustea... Nire mugekin, badakit noraino iritsi naitekeen, baina egiten dut. Ateratzen naiz ere. Ez nintzen ausartzen kalera bakarrik ateratzera. Fisikoki ere neure burua hobeto ikusten dudanez, ausartzen nahiz gehiago ateratzera. Seguritatea eman dit. Adiktiboa da.

8 Zaletasuna da, edo lehiatzea pentsatu duzu?

G.: Momentuz, afizioa. Ez dut nire burua lehiatzen ikusten. Egoera berean dagoen jendea ikusten duzu, eta izugarria da egiten dutena. Modalitate artistikoan ere ez dut neure burua ikusten, oso arritmikoa naizelako.

9 Zer esango zenioke hasi nahi duen pertsona bati?

G.: Animatzeko, asko gozatuko duela. Sufrituko du ere. Amaia oso gogorra da. Beti hartuko zaitu, baina gogorra da. Nik gomendatuko nuke, engantxatzen zarela. Oso kirol osatua da.

A.: Ikasleekin komentatzen dut, eta denek esaten dute edozein arazo duzula hemen sartzen zarenean ahazten duzula. Zeure buruari eskaintzen diozun momentu bat da, zeuri, zure gorputzari eta disfrutatzeari.

10 Jantzi berezia eramaten duzue, ezta?


A.: Top-a eta short-a. Barrara azalarekin heltzen zara. Seguritatea zure azalak ematen dizu. Praka bereziak daude ere, baina hoberena azala da. Azkenean, guk maskurra dugu.

G.: Hasieran konplexu asko nituen. Denak. Oraindik baditut, baina hasieran ez nuen elastikoa kentzen, eta short luzeagoak eramaten nituen. Orain lotsa kendu dut. Oso lotsatia naiz, baina hemen dena galtzen da. Orain, zenbat eta arropa gutxiago, hobeto.

11 S stripteaseko artisten estereotipoa dago. Nola egin aurre?

A.: Ni soinketa artistikotik nator, eta hasi nintzenez oso jende gutxi egiten genuen. Barra batean akrobaziak egiten nituela erantzuten nuen, esaten zidaten ea noiz dantzatu nien. Eta zergatik dantzatu behar dizut? Gero eta gutxiago identifikatzen dute, baina zaila izan da.

G.: Hollywoodek jarri duen estereotipoa da. Egia da lehenengo gauza horrekin identifikatzen dutela, baina askoz gehiago dago.



**EUSKARAREN
ERABILERA SUSTATU
NAHI DUGU**

Horretarako,
euskarara edo euskaratik itzuli nahi duzun
testu horrekin lagunduko dizugu

gk
DISEINUA ETA
KOMUNIKAZIOA

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe
619 821 436 | info@gkomunikazioa.eus | Foru plaza, 23-1. Altsasu

f | www.gkomunikazioa.eus